

noaua



**Igandean Aginagan,
'HerrimaMITUZ'
bertso-ikuskizuna**

**Udal dirulaguntzak
eskatzeko epea zabaldu da**



**Aurtengo Inauteri Festa
aspaldiko jendetsuena izan da**



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

www.lhusurbil.eus
EZAGUTU GURE IKASTETXEA



IZEN EMATEA

**ATE
IREKIAK**

MARTXOAK 9

16:30 Goi Maila

18:00 Erdi Maila

MAIATZAK 3

16:30 Goi Maila

18:00 Erdi Maila

MAIATZAK 6

10:00 Erdi Maila

11:30 Goi Maila

CIFP USURBIL LHII

ETARTE BIDEA 9, ZUBIETA, USURBIL

943 364 600

orientazioa@lhusurbil.eus

AR-DESIGN

**AUTO-TAILERRA · AUTOEN KONPONKETA
· MEKANIKA · MARKA GUZTIAK · PRE-ITV · GURPILAK**

**· KAMPER FURGONETA ETA AUTOKARABANENTZAKO
OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**

**· ZURE FURGONETA KAMPER BIHURTZEKO
AHOLKULARITZA, OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**



633 12 44 00



OSINALDE POLIGONOA Ondarzulo, 11 USURBIL info@ar-design.eus www.ar-design.eus

Albisteak iruditan

Turkia eta Siriara bidaltzeko laguntza batu dute

Oinarrizko gaiak biltzen aritu zen herritar talde bat iragan otsailaren 17an Mikel Laboa plazan, berriki Turkian eta Sirian izan diren lurrikaretan kaltetutakoentzat. Zaporeak elkarreak Euskal Herri mailan egindako deialdiarekin bat egin zuen hitzorduan herrikideek erakutsitako elkartasunarekin pozik da antolakuntza. “Primeran joan zen bilketak”, adierazi diote NOAUA!ri. “Erantzun polita eman du Usurbilgo herriak. Baten bat kanpotik ere etorri zen”. Usurbilen iragan ostiralean bildutakoa biharamunean Zaporeak elkarreak Martutenen duen egoitzara garraiatu zuten. Hortik aurrera, haiek egingo dute banaketa.



Usurbilen iragan ostiralean bildutakoa biharamunean Zaporeak elkarreaken egoitzara garraiatu zuten.

Gaztetxoenen parte hartzea

Oinarrizko zenbait elikagai eta garbiketa pertsonalerako produktuak jaso nahi zituzten. “Denetarik pixka bat jaso dugu, baina batez ere arroza eta pasta”, nabarmendu du aipatu herritar taldeak. Horrekin batera, 140 euro eskudirutan. Belaunaldi gazteenak ere bere ekarpen

solidarioa egin zuen. “Ponpoiak eta giltzatakoak egiten aritu ziren Bordatxo parean. Salgai jarri zituzten eta handik ateratako dirua proiektu honi eman zioten”. Gogoan izan, diru ekarpenak ere egin daitezkeela. “Bildutako elikagaiak garraiatzeko gastuei aurre egiteko zuen

ekarpen ekonomikoa ere ongi etorria izango da”. Zaporeak elkarreak dituen kontu zenbakiotan egin ahalko dira ekarpenak:

Kutxabank: ES14 2095 5092 00 9115250322
Laboral K.: ES71 3035 0103 88 1030035880
Bizum: 00435

Laburrean

Ostiral honetan, Sareren mobilizazioa

Hilero azken ostiralero egiten duen moduan, mobilizatzerak deitu du Usurbilgo Sarek. Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea iluntzeko 20:00etan hasiko da eta, ohi bezala, Mikel Laboa plazan batuko dira.

HH, LH eta DBH zikloetan matrikulatzeko garaia da

HH, LH eta DBH zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetan izena emateko epea otsailaren 24an amaituko da. 2023-2024 ikasturteari begira, Udarregi Ikastolan eta Aginaga zein Zubietako eskoletan eman daiteke izena udalerrri honetan.

Osakidetza defendatzeko manifestazioa

Osasun zerbitzu publikoa babestu eta defendatzeko mobilizazio eguna deitu dute SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek larunbat honetarako. Manifestazioa eguerdiko 12:00etan abiatuko da Donostiako Bulebarretik.

noaqua

Kultur Elkarrea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarrea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Gerra santuak?

Historian zehar makina bat aldiz eraso egin da, torturatu eta hil Jainkoaren izenean. Zenbat gerra, gatazka, abusu, ustez eskubide sakratu batzuk defendatzeagatik. Azken batean, aitzakiak besterik ez ziren askotan “zorioneko eskubide sakratu” horiek; estigmatizatu egiten ziren pentsaera ezberdinak, botere politiko nahiz erlijiosoek onartzen ez zituzten guztiak. Hori zen benetako arrazoia. Eta basakeria horiek guztiak Jainkoak onartuak eta babestuak ziren lider erlijiosoek ziotenez.

Egun hauetan askotan ikusi ditugu pope ortodoxoak errusiarren soldaduen armak bedeinkatzen. “Ene seme kuttunok, zoazte lasai gure aberri maitea defendatzera, zerua irabaziko duzue eta. Izan ere, zuek egitera zoazten sakrifizio horrek bekatu guztiak kentzen ditu”. Ziur aski hitz horiek edo antzekoak esanda bidali dituzte soldadu gizajoak. Jada, milaka dira erori direnak. Eta teologia hori erabili da mendeetan zehar. “Milimetrotiki errepikatzen da historia hau epoka eta kultur guztietan”, dio kazetari batek.

Zalantzarik gabe Errusiako Kiril patriarka txundituta gelditzen da Putin ikusten duenean elizan aitaren egiten debozioz beterik, kandelak



Errusiako Kiril patriarka.

LUIS ARANALDE

“Kristauen jokabidea izan da penagarriena. Ebanjelioaren agindu nagusia elkar maitatzea da, eta gerrak bedeinkatzea eta horiek justifikatzeko Jainkoaren izena erabiltzea arrunt lotsagarria da”

pizten eta Jesukristoren izena aipatzen. Jakina, Putinentzat eta Kirilentzat Ukrainiako Gobernua “Antikristo-a” da eta ukrainar guztiak hiltzea misio sakratu bat. Kieveko gotzainak zerbait antzekoa egin zuen beren soldaduekin. Umore ederrez kazetari batek esaten zuen aurreko batean: “Jainkoa nahaste-borraste handi baten aurrean aurkituko da han goian, batzuen eta besteen erregu antagonikoak iristen zaizkionean”.

Denak Jainko berari erre-zatzen? Trumpek ere askotan aipatzen du Jainkoa (berea noski) eta biblia. 1982ko Malvinasko gerran argentinarrak Thatcher ziren protagonistak. Batak gotzain gautxoak eta besteak anglikanoak bidali zituzten gudariak indar espiritualez jantzi zituzten. Gatazka gehien jatorria nazionaltasuna eta erlijioa izan dira historian zehar, eta askotan biek bat egin dute. Musulmanek iberiar penintsula “Allah handia da” orro eginez konkistatu zuten. Pentsa, katoliko eta protestanteen arteko erlijio gerrak XVI. mendean. Inkisizioak berak milaka hil zituen Jainkoaren ohorea salbatzeagatik, Elizaren dotrina garbi eta zuzen gorde-tzeagatik. Egungo muturreko izar politiko eskuindarrek (Meloni, Abascal, Orban eta abar) harro aldarrikatzen dute beren

kristau fedea, nahiz eta pobreei laguntzak murriztu. Hauen artean asko eta asko ebanjelioaren antipodetan daude.

Niretzat kristauen jokabidea izan da penagarriena. Ebanjelioaren agindu nagusia elkar maitatzea da eta gerrak bedeinkatzea eta horiek justifikatzeko Jainkoaren izena erabiltzea arrunt lotsagarria da, ebanjelioaren traizio garbia. Erlijio guztietan egon dira gainera teologo mordoa garai-ko diktadoreen kontzientziak lasaitzeko.

Errusia eta Kieven arteko gatazka latz honetan, Frantziako Aita Santuak ahalegin guztiak egin ditu bakea ezartzeko. Zoom sarea erabiliz 40 minutuz hitz egin omen zuen Kiril Errusiako patriarkarekin. Lehen 20 minututan eskutian zuen paper bat irakurri omen zuen, Putinen inbasioa justifikatuz, alegia. “Ez dut ezer ulertu”, zioen Frantziskok Corriere della Sera egin zion elkarrizketa batean. “Bakearen bideen bila ibili behar dugu eta borrokekin amaitu”, eskatzen zion Kirili. “Patriarka bat ezin da Putinen akolito bihurtu”, salatu zuen. Duela hiru hilabete 70 urte bete zituen Putinek. Kirilek honela zoriondu zuen: “Jainkoak eman dizu duzun botere hori. Indar morala eta fisikoa opa dizkizut zure eginkizun sakratu hori zintzo bete dezazun”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Usurbilgo enpresa batek kirol arropaz hornituko du Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa

Negua Usurbilgo kirol arropa markak eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Datorren denboraldian, Negua enpresak kirol arropaz hornituko du GEPF.

Itziar Lete Andonegi Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko presidenteak eta Ander Zuaznabar Negua Extreme Sportwear kirol markaren kudeatzaileak berretsi dute lankidetzaz konpromisoa, Gipuzkoako pilotariak jantzeko. “Izan daitezkeen premiei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko eta euskal pilotaren hobekuntzan eta aurrerapenean



Negua eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, hitzarmena sinatzen.

elkarrekin lanean jarraitzeko konpromisoa dugu”, azaldu zuten hitzarmenaren aurkezpen ekitaldian.

Bi aldeen arteko aliantza oso positibotzat hartu du GEPF-ak, “lana eta zerbitzua hobetzen jarraitzeko” lagungarria izan

daitekeelakoan.

Negua enpresak horrela definitu du bere jarduna: “Kirolariak errendimendu maila gorenera eraman nahi dituen diseinua eta jantzigintza ditugu helburu”. Azken belaunaldiko eta kalitatezko ehunekin egindako jantziak ekoizten dituztela diote, “jasangarritasun-parametroen arabera, eta norabide horretara egokitutako fabrikazio-prozesuak jarraitzen ditugu”.

Negua enpresa Txikierrdin dago, Asteasuain Industrialdean. “Emakumeen kirolarekin hartua duen konpromiso sendoari eutsiz, patroï desberdinak ditugu emakumeentzat eta gizonentzat”.

Ika-mika

Gure gaztetxoak babestu al ditugu?

Udaleko Alkatetzak 2022ko urtariletik Covid-19 txertoen erregistroen datu ofizialei buruzko informazioa dauka; bai Estatu Batuetakoa, bai Europakoa. Informazio horretan egiaztatu zen gaizki deituriko Covid txertoaren inokulazioak heriotzak eta kontrako ondorio asko sortzen ari zela. Informazio hori izan arren, Alkatetzak eta Udalak ez zuten herritarrek babesteko inolako lanik egin, urtarillean horri buruzko informazioa herritarrei emateko aukera izan bazuten ere.

Gogoratu behar da Eusko Jaurlaritzak Covid pasaportea eskatzeko abian jarri zuen Dekretuaren aitzakiarekin, herritar guztiak derrigorrez inokulatzeko estrategia bat garatu zela, eta, bereziki, herriko gaztetxoak txerto hori jartzera behar-

tu zituztela. Hau horrela izanda, kontziente izan behar dugu gure gaztetxoak ez ditugula hila beteak iraun duen hertsapen estrategia honetatik babestu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2022ko irailaren 20an, Covid pasaporteari legezko babesa ematen zion Eusko Jaurlaritzaren Dekretua balio gabetzat jo du. Dekretu hori herritarrek “txertatzen” derrigortzeko funtsezko tresna izan zen eta orain, legea aplikatu ondoren, balio gabea dela diote.

2022ko urriaren laugarren astean, Alkatetzak eta gainerako zinegotziek mozio bat jaso izanaren agiriarekin jaso dute. Udalbatzan gai hau azter dezaten. Mozio horretan honako hau eskatzen da:

1.- Eusko Jaurlaritzako arduradunei auditoria bat egiteko eskatzea, azken hilabeteetan

EAEn gertatzen ari diren gehiegizko heriotzen arrazoiak ezagutzeko.

2.- Zuhurtziaren printzipioagatik, Osakidetzak abian jarri duen 4. inokulazio kanpaina berehala geldiarazteko eskatzea.

Mozio hori justifikatzeko, bi txosten aurkeztu dira. Bata estatuan eginga, Pedro Prietok burutua, estatuan eta nazioartean ospe handia duen zientzialariak. Eta bestea, EAEn eginga eta Euskadiko Biologoien Elkargoko dekan ohiak, Jon Ander Etxebarriak, eginga. Aipatutako txostenek, iturri ofizialeetatik abiatuta, ondorio berera iritsi dira: azken hila-beteetan gehiegizko heriotzak egon direla. Gehikuntza hori badirudi txertaketa indizearekin lotuta dagoela, alegia, gero eta Covid inokulazio gehiago, heriotzen gehikuntza handia-

goa dagoela. Beste herrialde batzuetan ondorio berbera salatzen ari dira.

Azkenik, Bizitza euskal herrir mugimendutik informazioa zabaltzen ari gara, herritarrek albo ondorioen aurkako tratamendu eraginkorrei buruzko informazioa izan dezaten, Covid txertoak hartu dituzten pertsonak desintoxikatu ahal izateko. Hala nahi duen edonork honako zerbitzu hauek ditu arreta jasotzeko eta tratamendu eraginkor horiek eskuratzeko:

MAI: www.movimiento-asistencia-integral.com
695 584 607

www.osasunbizi.eus
623 300 959

<https://labur.eus/u68QH>

Bizitza-Usurbil

Udal dirulaguntza deialdietara eskabideak aurkezteko garaia da

Lerrootan Usurbilgo Udalak 2023ko denetariko Legitasmoak babesteko iragarri dituen laguntza lerro guztien berri. Udal dirulaguntza lerroen oinarriak eskuragarri dituzte interesdunek. Eskariak aurkezteko epea zabalik da.

Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

■ Laguntzaren zenbatekoa: “Elkarteen kasuan, ekintza publikoak direnean, gehienez ere kostu osoaren %90a diruz lagundu ahal izango da. Norbanakoen kasuan, gehienez ere kostuaren %50a diruz lagunduko da, eta eskatzaile bakoitzari 2.000 euro emango zaizkio gehienez”.

■ Lagunduko diren lehentasunezko ekintzak:

- Pobrezia energetiko egoerak.
- Energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak.
- Usurbil herrian energia ez berriztagarriaren kontsumoa energia berriztagarriaren kontsumoarekin ordezkatzeko ekintzak.

- Ingurumen gaien inguruko dibulgazio kanpainak, jardunaldiak antolatzea, tailerrak eta azterlanak.

- Bioaniztasun, ondare natural, hondakin, aire kalitate eta kutsaduraren inguruko proiektu eta ekintzen garapena.

Kirol saila

Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoa

■ Laguntzaren zenbatekoa: “Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaitutako aipatutako xederako diru izendapena, hau da, 50.000 euro”.

■ Lagunduko diren ekintzak: %35a denboraldiko lizentzia kopuruentzako, %22a den-



Kultura sailan, laguntzaren zenbatekoa 90.000 eurokoa izango da. Kultur sorkuntzarako beste partida bat ere bada.

KIROL ELKARTEN OHIKO EGITASMOAK

“Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaitutako aipatutako xederako diru izendapena, hau da, 50.000 euro”

boraldiko kirol lizentziak sortzen duten gastuetarako, %22a denboraldiko arbitraje gastuetarako, %5a kalitatezko entrenatzaileak sustatze aldera, dirulaguntzaren %3a autofinantziaziorako.

Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoak

■ Laguntzaren zenbatekoa: 3.000 euro gehienez. Dirulaguntza hauetan gehienez ere kostu osoaren %80a lagundu ahal izango da.

■ Lagunduko diren ekintzak: “kirol egokituko kolektiboek zuzendutakoak eta inklusioari lotutakoak hartuko dira kontuan”. Ohiko eta ezohiko ekimenak, eta ekimen puntualak lagunduko dira; baita kirolari bakoitzagatik, entrenamendu saio kopuruagatik, txapelketetan parte hartzeagatik, saioetako hizkuntzagatik...

Kirol-elkarteenak ez diren kirol jardueretarako ohiko dirulaguntzen oinarri espezifikoak

■ Laguntzaren zenbatekoa: 2.000 euro gehienez.

■ Lagunduko diren ekintzak: ikastaroak gehienez %60an lagunduko dira (parte-hartzaile bakoitzeko gehienez 100 euro).

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol Arloko dirulaguntzak eskatzeko deialdia

■ Lagunduko diren egitasmoak: laguntza bereziak (5.400 euro), taldeetako prestakuntza teknikoak (1.000 euro), kirolarien oinarriko osasun miaketak (5.000 euro), eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko diru laguntzak (5.000 euro).

Kultura Saila

Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

■ Laguntzaren zenbatekoa: 90.000 euro.

■ Lagunduko diren ekintzak: -Ikastaroak: gehienez %60an lagunduko dira. Ikastaroko parte-hartzaile bakoitzeko 100 euro emango ditu Udalak.

-Irteerak: gehienez ere, udalari eskatutako dirulaguntzaren %10ekoa izango da.

-Kanpamentuak, udako ekintzak, txokoak...: gehienez ere, udalari eskatutako dirulaguntzaren %60 emango da. Gehienez haur bakoitzeko hileko 60 euro izendatuko dira. 15 egunekoa bada 30 euro, astebeteko bada 15 euro.

-Gainerako kultur ekintzak: gehienez ere, udalari eskatutako dirulaguntzaren %95 jasoko da. “Ekintza baterako 2000 euro baino gehiagoko dirulaguntza eskatzen denean, udalak beste era bateko irizpideak erabili ditzake: ekintzaren nolakoa (helburua, kalitatea, originaltasuna, herria nabarmentzea, genero ikuspegia...), norentzakoa (eragina gizartean, kolektibo bereziei zuzendua egotea...), sendotasuna, parte hartzea bultzatzea, finantzazio-iturriak,...”

2023ko kultur sorkuntzarako dirulaguntzak

■ Laguntzaren zenbatekoa: gehienez jardueraren kostuaren %90a.

■ Lagunduko diren egitasmoak: arte eszenikoak eta performatiboak, arte plastikoak, musika-arteak, literatura-arteak, ikus-entzunezko arteak, beste zenbait kultur adierazpen artistiko...

Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak

Nekazaritza eta abeltzaintza saila

Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

■ Laguntzaren zenbatekoa: gehienez ere kostu osoaren %50 a izango da, eta eskatzaile bakoitzari gehienez 2.000 euro emango zaizkio.

■ Lagunduko diren ekintzak: 28 urtetik beherako Usurbilgo nekazari gazteek ustiapen berriak abiatzeko eta hobetzeko egitasmoak; hildako animalien kudeaketa lanen gastuak; ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak; Usurbilgo emakumeak nekazaritzan aritzeko ekintzak; abandonatutako nekazal lurak berreskuratu eta berreskuratzeko ekintzak; Usurbilgo baserri-tarren lan-baldintzak hobetzeko ekintzak; Usurbilgo nekazal produktuen bertako kontsumoa bultzatzeko ekintzak; bertako abere arrazak berreskuratzeko edota bultzatzeko abeltzaintzako egitasmoak; nekazarien prestakuntza hobetzeko egitasmoak.

Gizarte ongizatea saila

2023an gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdiaren oinarri espezifikoak

■ Laguntzaren zenbatekoa: dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

■ Lagunduko diren ekintzak: “Gizarte Zerbitzuen arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira edo ordezkatzan badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda”.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako dirulaguntzen deialdia

■ Lagunduko diren gastuak:



Denetarikoko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu berri da.

ESKAERAK

“Presentzialki, Udaleko Erregistro Nagusian. Telematikoki, usurbil.eus atariaren bidez”

etxebizitza bat eskuratzeko sarrera gastuak; sendagileak agindutako medikazioa, gizarte-segurantzak diruz laguntzen ez duen kasuetan; diruz laguntzen ez diren justiziaren-arloko gastuak; diruz laguntzen ez diren hezkuntza-gastuak; ohiko eguneroko gastuak (elikadura, arropak, garraioa); aurreko kontzeptuetan zorpetzea egongo dela aurreikusten diren egoerak; Udaleko gizarte-lan-gilearen txostenean adierazten diren premia biziko beste edozein gastu.

Igogailuak instalatzeko dirulaguntzak

■ Laguntzaren zenbatekoa: Eskaera bakoitzeko dirulaguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da.

■ Lagunduko direnak: 2022an amaitutakoak izango dira.

Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak

■ Lagundu daitezkeen gas-

tuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia egiten den aurreko urteko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira. “Diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazio-eko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptuean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere”.

■ Laguntzaren zenbatekoa: dirulaguntza gehienez 250 eurokoa izango da bizikidetzaren unitate bakoitzeko.

Ekintzaileentzako Kabiene Elkartearen lankidetzaren esparrua erabiltzeko Hasiz Hazi bekaren oinarriak

■ Laguntzaren zenbatekoa: dirulaguntzaren gehienez 1.234,20 eurokoa izango da, beti ere ekintzaileak 12 hilabetetako erabilera izaten badu Kabieneen.

Hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten ekintzaileentzako dirulaguntzen oinarriak eta 2023ko deialdia

■ Laguntzaren zenbatekoa: ekimenak abiarazteko hasie-

rako gastuei aurre egiteko gehienez 5.500 euro. Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako, lehen urtean gehienez 400 euro hilean, bigarrenean 300 euro gehienez jota.

■ Lagunduko diren egitasmoak: egun eskaintzen ez diren zerbitzuekin lotutakoak edota ixtear izan edo itxi berriak izan diren jardueren jarraipena bermatzen dutenak lehenetsiko dira.

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoek osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzen deialdia

■ Laguntzaren zenbatekoa: eskaera bakoitzeko urteko dirulaguntza gehienez 600,00 eurokoa izan daiteke.

Deserrotze edo baztertzeko sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei zuzendutako dirulaguntzen oinarriak eta 2023ko deialdia

■ Gutxeneko laguntzaren zenbatekoa: Usurbil eta zentruen arteko distantziarako joan-etorriko kilometro bakoitzeko 0,29 euro hilero gehienez behin.

Eskabideak aurkezteko epea:

■ Ekintzaileei zuzendurikoak: otsailaren 18tik irailaren 30era.

■ Norgehiagoka erregimene-koak ez diren Kirol Arloko dirulaguntzen kasuan; otsailaren 18tik abenduaren 1era.

■ Gainerako laguntza lerroen kasuan: 20 egun baliodun, otsailaren 18tik zenbatzen hasita, martxoaren 17ra arte.

Eskabideen aurkezpena:

■ Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian.

■ Telematikoki, usurbil.eus atariaren bidez.

Informazio gehiago:


Otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Aztarrikaren jardunaldiak

E, ikusi alden zein pasadan? Hoi ez al hunan nexka? zioen karteletako batek. Hi Jon, beldurra emate zaiak kuadrillakuei mutillak gustatze zaxkiakela esatiak, igual hola nere gurasuak enteatu ingoituk ezta?, zioen beste batek. Aizan Maria, atzo Eiderrekin parrandan eon niñuan ta katxonda jarri genitxonan, ze ostia pasatze zaiian?. Argitu da nork eta zergatik jarri dituen azken egunotan, herriko kaleetako hormetan agertu diren kartelak. Sexu nortasunei, norbere desirari lotutako hainbat galdera, zalantza idatziz jaso dituzte paperezko euskarriotan. Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak jarri ditu kartelak.

“Azken egunotan herriko hormetan ikusi diren mezuek sabela nahastu al dizute? Jakin hori dela Aztarrikako kideok bilatu nahi izan duguna”, adierazi dute NOAA!ra igorritako ohar bidez.

Herrian halakoak entzun ostean, Gazte Asanbladakoei bezala, gainerakooi ere zer hausnartua ematea. “Benetan



Ostiral honetan, “aurrekoan jasotako ondorioekin Hiruki Larroxa elkarteak formakuntza saio bat eskainiko digu”. 17:00etan Artzabalgo gazte lokalean.

AZTARRIKA

“Herriko gazte guztiak datozen asteetako saioetan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu!”

al da Usurbil denontzako herria? Zenbateraino dago onartua “normaltasunetik” ateratzen den hori?”. Galdera hauek abiapuntu gisa hartuta, hausnarketarako saioak antolatu ditu Aztarrikak. Lehenengoa hilaren 17an egin zuten. Mahainguru baten bueltan gazteen hausnarketak bildu nahi izan

zituzten. Ostiral honetan, hilaren 24an, aurrekoan “jasotako ondorioekin Hiruki Larroxa elkarteak formakuntza saio bat eskainiko digu”. Arratsaldeko 17:00etan Artzabalgo gazte lokalean.

Hitzorduotan parte hartze-ko gonbita egin dute. “Herri askeago bat lortzera bidean Usurbilgo gazteok honen gaineko ardura hartu nahi dugu. Beraz, herriko gazte guztiak datozen asteetako saioetan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu! Identitate eta orientazio anitzen alde animatu eta parte hartu!”.

KzGunera datozen ikastaroak

Otsailaren 28ra arte arratsalde zabalduko dute Kzgunea, 16:00-20:00 artean. Martxoaren 1etik aurrera, goizez, 9:00-13:00 artean. Honatx datozten ikastaroen berri:

■ Martxoak 1-3, 9:00-11:00 “Zure bidaia planifikatu”.

■ Martxoak 6-14, 11:00-13:00 “Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi”.

■ Martxoak 15-16, 11:00-13:00 “Whatsapp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean”.

■ Martxoak 17-20, 11:00-13:00 “Argazkiei ukituak eman zure Smartphonearekin”.

■ Martxoak 21-31, 11:00-13:00 “Google Aplikazioak zure Smartphonean”.

Informazio gehiagorako:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Martxoaren 5ean, haurrentzako filma Sutegin

Negu parte honetarako Usurbilgo Udalak Ziortza gazte elkartearekin antolaturiko neguko euskarazko zine zikloko azken proiektzioa iragarri dute martxoaren 5erako; “Yuku eta Himalaiako lorea” film estreinatu berria; ohi bezala, 17:00etan Sutegin. Sarrerak aurrez 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. “Munduko mendi garaien tontorretan bizi da eguzki-argi garbienaz elikatzen den landarea... Himalaiako lorea. Yuku sagutxoak familia atzean utzi eta betiereko argia duen lore horren bila abiatuko da bere amari eskaintzeko, hura laster eramango du-eta satoritsuak Lurraren sakonera”. Hortxe ikus-entzunezko honen abiapuntua.

Jai Batzordearen bilera berri bat

Otsailaren 16rako iragarria bazegoen ere, ostegun honetara, hilaren 23ra atzeratu dute Usurbilgo festak antolatzeko bigarren bilera, arratsaldeko 18:30ean izango da Potxoenean. Gogoan izan, aurreko bileran, festak ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatzea erabaki zuten. Datorren bileran, egitaraua osatzeari ekingo diote. Santixabelen antolakuntzan parte hartu nahi duen norbanako nahiz eragileei zuzendua dago hitzordua. Bilgune honetan erabakitzen dira festen nondik norako guztiak.



Ostegun honetan, hilak 23, arratsaldeko 18:30ean batuko dira Potxoenean.

Uraren filtrazio sistema hobetzeko lanak hastear dira

Usurbilgo ur-hornidura hobetu eta Andatzan sortzen den herriko ura etxebizitza gehiagotara iristea. Hori da aste honetan hasiko diren lanen helburu nagusia. Udalak 878.500 euroko inbertsioa egingo du.

Uraren filtrazio sistema hobetzeko obra honela gauzatuko da: Batetik, San Esteban 1 deposituan filtro berriak jarriko dira, "Erroizpeko iturburuetako ura ez ezik presako ura ere baliatu ahal izateko".

Eta, bestetik, depositu hori eta Eroizpeko iturburuak lotzen dituen hodia berrituko da. "Jatorrizko proiektua filtroak aldatzeko idatzi zen, baina obrak egingo direla aprobetxatuz, hodia ere aldatzea erabaki dute, berritzeko zuen premia ikusita", udalak azaldu duenez.



San Esteban depositua 1 eta Eroizpeko (irudian) iturburuak lotzen dituen hodia berrituko dira. Argazkia: Usurbilgo Udalak.

Erroizpeko urarekin Usurbilgo etxeen %40a hornitzen da

Usurbilgo etxebizitzak Eroizpeko zein Añarbeko urarekin hornitzen dira; giltzen bidez, bata edo bestea erabiltzeko aukera ematen du Usurbilgo ur sistemak. Gaur egun, Eroizpen dauden hiru iturburu bidez Usurbilgo etxeen %40 hornitzen da (Zubieta, Aginaga, Santuenea, Txokoalde, Urdaigaga eta, kaxkoan, Kale Nagusitik beherako zatia). Filtrazio sisteman egingo den inbertsio honen bidez, Eroizpeko hiru iturburuetako ura ez ezik presako ura ere baliatzeko aukera izango da: segundoko 11 litro ordez, 86 litro erabili ahal izan-

nitzen da (Zubieta, Aginaga, Santuenea, Txokoalde, Urdaigaga eta, kaxkoan, Kale Nagusitik beherako zatia). Filtrazio sisteman egingo den inbertsio honen bidez, Eroizpeko hiru iturburuetako ura ez ezik presako ura ere baliatzeko aukera izango da: segundoko 11 litro ordez, 86 litro erabili ahal izan-

go dira.

Ez da ur mozketarik izango

Obrak iraun bitartean, "herri-tarrek ez dute ur mozketarik jasango", udaletik aditzera eman dutenez. "Añarbeko ura erabiliko baita, %100ean, herri osoan".

Burujabetzan irabazi

Ur propioa eskura izanda, udalak berak kudeatzearen aldeko hautuari heldu nahi dio. "Izan ere, inbertsioak beste erakundeekiko burujabetza handiagoa izatea ahalbidetuko dio udalari, eta orain egingo duen inbertsioa zortzi-hamar urtetan amortizatu ahal izango du", aditzera eman dutenez. Bide horretan, San Estebango 1 eta 2 deposituak lotzen dituen hodia berritu zuen udalak 2021eko otsailean.

noaqua
jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaqua

www.noaqua.eus

Turkia

IRTEERA 2023ko maiatz

Rhin itsasbidaia

IRTEERA 2023ko ekaina

NOAQA BIDAIAK Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Udarregi ikastolako LH eta DBH zikloetako desfileak lau haizeetara zabaldu zuen Inauteri festa



Udarregi ikastolako ikasleek desfile koloretsu eta musikatu batekin piztu zuten Inauteri jaia Usurbilen. Ipuin gogoangarriez osaturiko ikuskizun borobila eskaini zuten Udarregi Ikastolako LHko ikasle eta irakasleek Oiarde kiroldegian. Ondoren, Udarregi ikastolako ikasle helduenek munduko kulturak, jantziak eta dantzak ekarri zizkiguten Inauterietako emanaldira.

Orbeldi dantza taldeak Adunako Axeri Dantza ekarri zuen Usurbilera



Orbeldi Dantza Taldeak Adunako Axeri dantza eskaini zuen aurreko ostiralean, Zumarteko musikariez lagunduta. Ia ordubetez kalejiran ibili ondoren, frontoian amaitu zuten dantza guztiak biltzen zituen emanaldi batekin.

Zubietako eskolako ikasleak kalejiran ibili ziren



Eskolaren kanpokaldean, Alamandegia aurrean, Barazar parean eta plazan aritu ziren dantzan.

Zubietako Eskola Txikian ostiral arratsaldean egin zuten Inauteri jaia. Eskolatik atera ziren haurrak eta guraso zein lagunen aurrean azken asteetan prestatzen ibili diren dantzak

eta mozerroak erakutsi zituzten. Eskola kanpoan, Alamandegia aurrean, Barazar parean eta plazan egin zuten dantza, eta ez haurrek bakarrik, baita irakasleek ere.

Aginagakoak antzezlan baten bitartez murgildu ziren Inauterietan



Antzezpenari ekin aurretik argazki saio bat egin zuten Eliza Zaharraren atarian.

Beste toki batzuetan dantza edota kalejiran aritzen dira, Inauterietako kanten erritmoan. Aginagan ordea, beste modu batean murgildu ziren mo-

zorro festan. Itsasoko motibo ezberdinak baliatuz, antzezlan aparta prestatu zuten, bertaratu ziren gurasoen zein senideen gozamenerako.



Etorkizuna Orain.

etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

Zine izarrez bete zen herria



Piratak, magoak edota mojak protagonista zituen filmak inspirazio iturri izan dira aurtengo Inauteri Festan.

Hollywood-en inbidiarik ez



Inauteri Festa jendetsuak eguneroko bizimodua nabarmen eten zuen. Kuadrilla askoren lanari esker, jai giroa herrian barrena zabaldu zen.

“Puxikekin karroza ikusgarriagoa da eta zeresan handiagoa ematen du”

Ursbil Hollywood bilakatu zen larunbatean denetariko zinema-izar eta pelikularekin. Marrazki bizidunak ere herriko kaleetan ibili ziren, horien artean, metro askotako distantziatik ikus zitezkeen ‘Up’ filmeko puxikak eta Carl Fredricksen edadetua-
ren etxea. Russell umeak zebiltzan inguruan, 2002an jaiotako mutil kuadrilla bat. Haiekin izan zen NOAUA! mozorroaren eta kuadrila horren nondik-norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Pixar ekoiztetxeak sortutako “Up” filma hautatu duzue aurtengo inauterietan mozorrotu eta karroza egiteko. Hasiera batean bi ideia genituen Titanic film klasikoa eta Up. Kuadrilakoen artean egiteko errazagoa eta politagoa iruditu zitzaigun Up. Titanic aukeratu izan bagenu, bakoitza pertsonaia bat izango ginatekeen: orkestrako kideak, bi protagonistak, kapitaina, izozmendia... Karroza itsasontzia izango zen.

Bi aukera horien artean zergatik hautatu zenuten hau?
Karrozagatik. Errazagoa iru-



“Milaka pelikula daude eta ideia pila bat atera daitezke filmetatik”. Kuadrilla honek ‘Up’ filma hautatu zuen.

BI ASTETAKO LANA

“Hasiera batean bi ideia genituen Titanic film klasikoa eta Up. Egiteko errazagoa eta politagoa iruditu zitzaigun Up”

ditu zitzaigun etxe bat egitea itsasontzi bat egitea baino.

Gainera, puxikekin karroza ikusgarriagoa da eta zeresan handiagoa ematen du.

Zenbat denbora behar izan duzue hau guztia prestatzeko?

Bi aste eman ditugu lanean. Lagun batek supermerkatuko orga zeukan baserrian eta horretatik abiatuta, egurra hartu

genuen oinarria egiteko eta ondoren, kartoiarekin bildu, forma eman eta margotu egin genuen. Gainera, helioa duen bonbona bat geneukan eta kalera atera genuen larunbatean puxikak behar zirenean puzteko. Haur batzuei ere eman genizkien puxika batzuk lasai jolas zitezen.

“Aurtengorako aukeratua izan den mozorro proposamena asko gustatu zaigu”

NOAUA! Kuadrilla handia zaret. Denok egin duzue lan mozorroa prestatzeko edo gutxi batzuen artean egin duzue dena?

Beti gertatzen den bezala batzuek gehiago egin dute besteek baino. Mozorroak egiteko Primark-era joan ginen. Unibertsitatera hiriburu gehienetara joaten gara, eta aprobetxatuz, Donostia, Bil-

bo eta Gasteizko Primark-etan erosi genituen kamisetak eta jantzita generaman guztia.

Urtero izaten dira Inauterietako gaia maite dutenak eta batere gustatzen ez zaienak. Zuei gustatu zaizue?

Bai, oso irekia iruditu zaigu. Milaka pelikula daude eta ideia pila bat atera daitezke filmetatik. Filmak bakarrik ez, filmak

egiteko moduak eta generoak ere aprobetxa daitezke ideia onak hartzeko.

Gaiaren aukeraketan parte hartu duzue aurtengorako?

Ez. Egia esan inoiz ez dugu horretan parte hartzen. Hala ere, urtero ateratzen den gaia errespetatzen dugu eta ahalik eta ideia originalena bilatzen saiatzen gara ondoren mozo-

rrotu eta karroza egiteko.

Aurreko urteetan ere karroza egin duzue?

Bai, joan zen urtean Ferrari hartu genuen gaitzat eta auto gorri bat egin genuen karroza modura. Aurtengorako, “Up” pelikulako etxea eta datorren urtean, ez dakigu. Hobetzen ari gara. Ea datorren urterako zer bururatzen zaigu.

“Hasieran beti kostatzen zaigu ideia onak izatea”

Film ugari egin dira zinemaren historian eta horietako askotan agertzen dira protagonistaren aurka egiten duten pertsonaia gaiztoak. 1996ko nesken kuadrillak pertsonaia horiek ekarri nahi izan zituen gogora Inauteri festan. Marvelko pertsonaietatik hasi, Disneytik pasa eta herritar askok txikitik oso ezagun izango zituen pertsonaiak atera zituzten kalera.

NOAUA! Pelikuletako pertsonaia gaiztoak aukeratu dituzue aurtengo Inauterietan.

Bai. Ideia bat baino gehiago izan genituen buruan gaia zein izango zen jakin bezain laster: txuri-beltzeko pelikula edota zinema mutua, Akelarre pelikula... Hasieran txuri-beltzeko pelikularen kontuarekin ibili ginen atzera eta aurrera, baina denok ez geunden ziur ideia ona ote zen. Pelikulekin eta gustatzen zitzaizkigun ideiak zerrenda bat egin genuen gero: Toy Story, Akelarre, Kutxidazu Bidea Ixabel, High School Musical... Bakioitzak gehien gustatzen zitzaizkion hiru aukeratu zituen. Behin hori eginda,



Disneytik pasa eta herritar askok txikitatik ezagun izango dituzten pertsonaiak atera zituzten kalera.

IZAERAREN ISLA

“Oso izaera ezberdinekoak gara kuadrillan eta gure mozorroetan ere hori ikus zitekeen”

hiru onenen artean bakioitzak gogokoena aukeratu zuen Toy Story, Akelarre eta pelikuletako gaiztoen artean eta azken horiek irabazi zuen 6 botorekin.

Pelikula askotan daude gaiztoak. Nola aukeratu zenituzten zuen pertsonaiak?

Kuadrilla bat gara, baina oso izaera ezberdinak ditugu denok eta gure mozorroetan ere hori ikus zitekeen. Whatsappeko taldean zerrenda bat egin genuen bururatzen zitzaizkigun pertsonaiekin eta bakioitzak gogokoena aukeratu zuen.

Hasieran zalantza egin genuen horren gai zabala aukeratu talde kohesioa egitea erraza izango ote zen, baina karroza txiki batek lotuko gintuela pentsatu genuen. Bakioitzak bere pertsonaia gogokoena aukeratu ostean, joan zen urtean erabili genuen gurpildun-aulkia hartu eta apaindu egin genuen “gaiztakeriaren tronua” izan zedin.

“Beti erreparatzen dugu proposatzen den gaian, baina gure puntua ematen saiatzen gara”

NOAUA! Urtero izaten dira Inauterietako gaia maite dutenak eta batere gustatzen ez zaienak. Zuei gustatu al zaizue aurtengoan proposatu dena?

Orokorrean, hasieran beti kostatzen zaigu ideia onak izatea eta denok ados jartzea. Lehen momentu horretan, normalean, ez zaigu gaia gustatzen ideia konkreturik ez dugulako

izaten, baina gero, behin zer bait bururatutakoan, gustatzen zaigu.

Beti erreparatzen diozue gaiari mozorroa aukeratzeko orduan?

Bai, beti. Joan zen urtean adineko emakumeak izan ginen, beste urte batean, jokoak eta jolasak edo horrelako gairen bat tokatu zen eta “Nor da

Nor?” aukeratu genuen. Naturara izan zenean, naturako lau elementuak izan ginen: lurra, airea, ura eta sua.

Orokorrean, gaiaren barnean gai txikiago bat aukeratzeko dugu eta horrela, bakioitzak bere puntua ematen dio mozorroari.

Gaia aukeratzeko ordua iristen denean, ideien proposame-

nean parte hartzeko joerarik al duzue?

Ez dugu inoiz parte hartu. Normalean, ia Inauteriak gairen izan arte ez gara ezer pentsatzen hasten, eta beraz, gaia aukeratu behar denean ez dugu ideiarik izaten.

Datorren urtean, gaia aukeratu behar denean ideia eder bat okurrizten bazaigu parte hartuko dugu.

“HerrimaMITUZ bertso-saioan Aginagako eta inguruetako kontakizunetan oinarrituko gara”

Bertso-ikuskizuna eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrean, otsailaren 26an. Andoni Egaña eta Iñigo Mantzizidor (Mantxi) izango dira bertsolariak saio honetan, eta Xabier Alberdi historialaria izango dute lagun HerrimaMITUZ ikuskizunean. Herrian herriko kontuei buruzko saioa da ikuskizuna. Xabier Alberdi-rekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Zertan datza HerrimaMITUZ ikuskizuna?

Xabier Alberdi Lonbide: Historia bertsotan kantatzean datza ikuskizuna. Lehen emanaldia Zarautzen egin genuen, eta herriko dozena erdi bat gertaeran oinarritu ginen horretarako. Nik gaiak aukeratu eta ohol-tzan azaldu nituen. Kontu zaharrak izanik, protagonistarik ez dago gertaera horiek kontatzeko eta lan hori egiten dute bertsolariek. Aginagako planteamendua ere berdina izango da, Aginaga eta inguruko gertaera historikoetatik abiatuko gara.

Nondik sortu zen ikuskizuna egiteko ideia?

Mantxiri bururatu zitzaion ideia eta proposamena luzatu zigun Andoni Egañari eta bioi. Oso ideia ona iruditu zitzaigun eta Zarauzko emanaldia egin



Andoni Egaña eta Mantxi bertsolariak, eta eskubitara Xabier Alberdi Lonbide historialaria. Argazkia: Zarauzko Hitza.

XABIER ALBERDI HISTORIALARIA

“Aginaga, Usurbil eta inguru horretako kontuak landuko ditugu igande honetako saioan”

genuen, eta bigarren aldi hone-tan Aginagan izango gara.

Zein gai landuko dituzue?

Aginaga, Usurbil eta inguru horretako kontuak landuko ditugu. Errioiari lotutako gaiak

izango dira, batik bat, baina baita bestelakoak ere. Nik, batez ere, Gipuzkoako itsas historia aztertu dut, eta horretatik abiatuta leku askotako informazioa banuen lehendik. Hori baliatuz eta aro konkretu batera mugatu gabe egingo dugu ikuskizuna; Erdi Arotik hasi eta Gerra Zibilera artekoa izan zen Zarauzkoa, eta Aginagakoa ere antzeko zerbait izango da. Dozena erdi bat gai lantzeko denbora ematen du. Zarauzko gaietako bat ontzigintzari

buruzkoa izan zen. Herrian txalupa txikiak egiten zituzten bere garaian eta ondoren, Ternuara joaten ziren edo saldu egiten zituzten. Horrelako gai batetik abiatuta egoera batzuk planteatzen ditugu, XVI. mendeko Zarauzko ontzigile bat eta Kanadako indiar baten arteko eztabaida edo hartueman bat, adibidez. Aukera zabalak eskaintzen ditu planteamendu honek.

Ezagunak ditugun kontuak izango dira edo herritarrek ezagutzen ez dituzten kontu berriak?

Horren ezagunak ez diren kontuak lantzen saiatuko gara. Historian aditua denak edo horri buruz irakurri duenak jakingo dituen kontuak dira, baina orokorrean ez dira oso ezagunak izango. Mantxiren ideia ere hori zen hasieratik, bertsolaritza historiako ezaguerak hartzeko instrumentu izatea. Horregatik sartu nintzen proiektu horretan, oso ideia polita iruditu zitzaidan. Sarri ikusten da jendeak ez duela historiarekiko interes berezirik eta hau jendearengana gerturatzeko modu polita izan daiteke. Historialariok oso astunak izan gaitezke batzuetan eta kosta egiten zaigu materia erakargarri bihurtzea.

“Jendeak gozatu egingo du Eliza Zaharreko saioan”

NOAUA! Ikuskizun hau aurretik eskaini duzue Zarautzen. Nolako harrera egin zitzazuen zeuen herrian?

Xabier Alberdi Lonbide: Jendea oso gustura gelditu zen emaitzarekin. Batzuk historiarekiko duten zale-tasunak bultzatuta joan zirela esan zidaten eta beste

batzuk, berriz, bertso zaletasunak erakarrita. Aginagan ere bertsozaleak izango direla iruditzen zait gehiengoa. Gu zarauztarrak izanda eta etxean eginda saioa, nire lana ezagutzen dutenak erakarri nituen, baina Aginagan ez da berdina gertatuko, edo ez dut uste behintzat. Jendeak asko

gustatu zitzaiola esan zigun eta bertsolariak ere oso onak direnez, denok gustura. Ni harrituta nengoen bertsolariek eguneroko gaiak gehiago lantzen dituztelako eta ikusita nolako lan ederra egin zuten iragana landuz. Bertso ederrak bota zituzten eta Aginagan ere gozatuko duela

uste dut jendeak.

Emanaldi gehiago egingo dituzue begibistan?

Mantxik esan berri dit Zaldibitik deitu digutela. Pixkanaka badirudi zabaltzen ari den kontua dela eta oso pozik gaude horrekin. Ea saio gehiago sortzen diren.

Martxoaren 11n, Hirusta Trioren kontzertua Sutegin

Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen eskutik, Martxoaren 8aren tesuinguruan, Hirusta Trio taldearen kontzertua antolatu du, hilaren 11n arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Emakumea ardatz duen “Matrioshka baten geografia soinu-duna” emanaldia eskainiko dute, musikaren eta lirika-ren bidez. Sarrerak 5 eurotan eskuratu ahalko dira. Xehetasun gehiago datorren aldizkarian.



“Matrioshka baten geografia soinu-duna” emanaldia eskainiko dute.

Udalaren bi deialdi, otsailaren 28ra arte zabalik

Hilabete honetako azken egunean itxiko du Usurbilgo Udalak, bi deialdiotan parte hartze-ko epea.

■ HAPO: Hiria Antolatzeko Plan Orokorrari alegazioak aurkezteko otsailaren 28ra arteko epea izango dute interesdunek, udalbatzak urtarileko osoko bilkuran epe hau beste hilabetez luzatzea erabaki ostean.

■ Txirikorda: Ugartondon kokaturiko belaunaldiarte-ko etxebizitza komunitarioan izen-emateko aukera dute otsailaren 28ra arte, 18-30 urte arteko gazteek eta 65 urtetik gorako herrikideek.

Eskabide orriak eta xehetasun gehiago otsailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).



Ostiral honetan, arratsaldeko 17:30ean, bisita gidatua Txirikordan.

Txirikordara bisita

Ugartondon kokaturiko belaunaldiarte-ko etxebizitza komunitarioa barrutik ezagutzeko aukera eskainiko du Usurbilgo

Udalak, ostiral honetan, otsailaren 24an. Txirikorda bisitatzeko hitzordua arratsaldeko 17:30ean finkatu dute eraikina-
ren atarian bertan.

Bizitza plataformak hitzaldi bat antolatu du Sutegin

Jon Ander Etxebarria Garte biologoa Sutegin izango da ostiral honetan, hilak 24. Euskadiko Biologo-
en Elkarte dekan-ohia da eta ezbaian jartzen du Covid-19 txertoaren eraginkortasuna. Idatzi duen txosten batean aditzera ematen duenez, “azken hilabetetan gehiegizko heriotzak eman dira”. Gehikuntza hori badi-rudi txertaketa indizearekin lotuta dagoela, alegia, gero eta Covid-19 inokulazio ge-
hiago, heriotzen gehikuntza handiagoa dagoela.

Koronabirusaren aurkako txertoak albo-kalteak ere utzi ditu hainbat herritarren artean eta kaltetutako bi per-
tsona gonbidatu dituzte osti-
ral honetako hitzaldira.

Otsailak 24 ostirala

■ 18:30ean, Sutegin.

■ Hizlariak: Jon Ander Etxebarria eta txertoak kaltetu-
tako bi pertsona.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Bizitza plataforma.



Jon Ander Etxebarria biologoa eskainiko du ostiral honetako hitzaldia. 18:30ean, Sutegin.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Patriotasun
latetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

“Kultura eta genero aniztasuna lantzen dugu, beti ere sexologiaren ikuspuntutik”

Xelebreak Aniztasuna elkarteak kudeatuko du aurrerantzean Usurbilgo sexu aholkularitza gunea. Aritz Resines elkarteko kideak euren metodologiaren inguruko xehetasunak eskaini dizkigu.

NOAUA! Xelebreak Aniztasuna elkarteak noiz jaio zen eta zer nolako ibilbidea osatu du orain arte?

Aritz Resines Ruiz: Xelebreak Aniztasuna duela bospasei urte jaio zen. Ordutik kultura eta genero aniztasuna lantzen ari gara, beti ere sexologiaren ikuspuntutik. Begirada horrek bideak irekitzen ditu eta inoiz ez ditu ixten gizarteko hainbat eragilek egiten duten bezala.

Euskadiko hainbat udalerrri eta erakunderekin batera lan egiten dugu. Adin guztietako gizabanakoekin aritzen gara, bakoitzarentzat helburu zehatz batzuk finkatuz eta eduki jakin batzuk aztertuz, haiek tresna gehiago izan ditzaten sexualitate, kultur aniztasun eta genero kontuetan askeagoak izateko.

Usurbilgo Sexu Aholkularitza gunea kudeatuko duzue aurrerantzean. Zer nolako zerbitzuak eskainiko dituzue?

Usurbilen, gainontzeko udalerrietan bezala, zerbitzu integrala eskaintzen dugu. Ez gara bakarrik eskoletan edo gure



Aritz Resines Xelebreak Aniztasuna elkarteko kide da eta Usurbilgo sexu aholkularitza guneko kudeatzaile berria. “Edozein zalantza argitu nahi izanez gero, bakarrik, bikotearekin, lagunekin zein familiarekin etor zaitezke”.

ARITZ RESINES RUIZ

“Adin guztietako gizabanakoekin aritzen gara, tresna gehiago izan ditzaten sexualitate, kultur aniztasun eta genero kontuetan askeagoak izateko”

bulegoan egoten, aholkularitza ahal dugun leku guztietan eskaintzen dugu: elkarteetan, aniztasun funtzionala duten pertsonen artean, nagusiak diren pertsonekin, emakume elkarteekin... Asmoa da Usur-

bilen sexualitatearen ikuspegi anitz hori hedatzea eta presente egotea edozein lekutan. Eragile beharretara irekita gaude, haiek entzun eta haiei laguntza eskaintzeko prest.

Sexu Aholkularitza Zerbitzuak egoitza propioa du Usurbilen. Zein egunetan egongo zarete bertan?

Bi astean behin egongo gara bulegoan, astelehenez. 17:00etatik 19:00etara bitartean. Bulegoan gauden bitartean, edonor herbil daiteke guregana, aurrez zitarik eskatu gabe. Edozein zalantza edota kontu argitu nahi izanez

gero, bakarrik, bikotearekin, lagunekin zein familiarekin etor daiteke.

Modu telematikoa ere jar daiteke herritarra zuekin harremanetan, ezta?

Usurbilgo Udalaren webgunean gurekin harremanetan jartzeko bideak ageri dira. Telefonoz 650 232 714 zenbakira deituta ere, gurekin harremanetan jar daiteke. Whatsapp bidez mezua uzteko aukera dago, eta guk ahalik eta azkarren erantzungo ditugu zalantzak. E-maila ere badugu: sexuaholku@usurbil.eus

“Batzuk uste dute nahikoa badakitela, eta ez da horren erraza”

NOAUA! Sexua eta sexuaren ingurukoa tematika zabala da. Dena den, arlo askotan tabua da oraindik. Zuengana hurbiltzeko zalantza denari, zer esango zenioke?

Aritz Resines Ruiz: Batzuk uste dute nahikoa informazioa badutela eta dena dakitela, baina ez da horren erraza. Bi-

zipen askoz gehiago izan ditzakegu eta zailtasun gehiago ere bai, ondorioz. Guk gomen datzen dugu gehiago irakurtzea eta informazioa biltzea, gainontzeko arlo guztietan bezala. Modu horretan, gure sexualitatea eta erotika aberatsagoak izango dira. Ez da bakarrik zer egiten dugun ge-

nitalekin, baizik eta nolakoak garen, nola espresatzen garen, zeintzuk diren gure sentimenduak, harremantzeko modua, autoestima... Oso gai zabala da eta iruditzen zaigu oso interesgarria izan daitekeela edonorentzat. Beraz, gonbidapena luzatu nahi diegu herritarroi, gurekin harremanetan

jarri eta aztertu nahi dituzten gaien inguruan lasai mintzatzeko. Badakigu ez dagoela ezer naturalagorik sexuaz hitz egitea baino, eta ez dagoela ezer arrarorik, hau da, bakoitza den bezalakoa da eta bere bizipenak ditu. Horiek guztiek merezi dute atentzioa jartzea.

“Harpa Jotzen EITB-n, Spotify-n edota podcastak eskaintzen diren beste plataformatan entzun daiteke”

Harpa Jotzen podkasta estreinatu berri dute Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak. Umorea ardatz hartuta, gonbidatuak galdera absurdo eta xeblez josten dituzte bi umoristek. Bazterrak nahasten abilak dira biak eta Idoiarekin izan da NOAUA! podkastaren berri izateko.

NOAUA! ‘Harpa Jotzen’ podkasta plazaratu berri duzue. Umorezko audio saioa da. Nolatan sartu zarete mundu horretan?

Idoia Torregarai: Mirarik eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar, baina azken bost urteetan harreman hori indartu egin da binakako bakarrik-etak elkarrekin egiten hasi ginelako. Ia 300 plaza egin ditugu Euskal Herri osoan zehar eta bere autoan joaten gara beti. Zenbat kilometro egin ditugun eta zenbat hitz egin dugun bitarte horretan... Gu ez gara isilik egoteko horietakoak eta barre egin dugu ugari, baita negar ere. Ikuskizunaz gain, askotan aipatzen genuen podkast bat egiteko aukera eta nik banuen pertsonalki buruan



“Emakumeok bikoitza erakutsi behar dugu eta umorean zer esanik ez”.

IDOIA TORREGARAI

“EITBn oso harrera ona izan duela esan digute eta haiek ere oso pozik daudela”

horrelako zerbait egitea. Umorezko podkast asko jarraitzen ditut eta horrelako zerbait egin nahi nuen euskaraz. Euskadi Irratian kolaboratzen nuenean EITB podkasteko arduradunari ere aipatu izan nion ideia hau behin edo behin. Egun batean, hark egin zidan proposamena horrelako zerbait prestatzeko eta ‘Harpa Jotzen’ izango zena prestatzen hasi ginen.

Zer moduz doaz grabaketak?

Oso ondo pasatzen ari gara. 8 kapituloko podkasta egiten ari gara. Grabaketekin aurrera goaz eta gonbidatuei denetarik galdera xeblebreak egiten dizkiegu. Askotan munduko proiekturik onena egiten saiatu behar dela ematen du, anbizioarekin. Emakumeok bikoitza erakutsi behar dugu eta umorean zer esanik ez. Guk ez genuen hori nahi, presiorik gabeko zerbait eta ondo pasatzeko modu bat.

Lehenengoa jada plazaratu duzue Beatriz Egizabalekin batera egindakoa.

Bagenekien lehenengo atalak

bizia izan behar zuela, aurkezpen karta moduko bat da. Aitziber Garmendiarekin egin behar genuen berez, baina gaixorik zegoen. Gonbidatuen zerrendara jo genuen eta Beatriz geneukan horien artean. Berehala esan zigun baietz eta ordu batetik bestera grabaketa egitera eraman genuen.

Nolako harrera izaten ari da?

Guretzat oso esperientzia polita izaten ari da eta EITBn oso harrera ona izan duela esan digute eta haiek ere oso pozik daudela. Hori ere garrantzitsua da.

Zenbatean behin eta non topa dezakegu zuen podkasta?

Bi astetik behin, astelehenetan aterako dugu. Datorren astelehenekoa Joxe Rojas izango da, Tokikomeko komunikazio arduraduna. Hark kuadrillei buruz hitz egingo du eta denontzat oso gertukoak diren kontuei buruz arituko gara. EITB-n, Spotify-n edo podkastak eskaintzen diren beste edozein plataformatan eskuragarri izango da. Sare sozialen bidez edo partekatu nahi izanez gero, #Harpajotzen erabiltzaile jasoko ditugu.

“Luze edo Motz ikuskizunarekin azken txanpan gabiltza”

NOAUA! Momentuz zortzi saio izango dira, baina aurrerago badaukazue asmorik gehiago grabatzeko?

Idoia Torregarai: Zortzi saioko kontratuak eskaintzen dituzte, eta harrera ona badu, aurrekontua baldin badago eta gogoia ere bai, zergatik ez? Guk zuzenean luzatzen diegu lotsarik gabe EITBkoei bigarren denboraldirako gauzak prestatzen hasi beharko dugula erdi txantxatan.

Hala ere, momentuz zor-

tzikoa baino ezin dugu aurreratu.

Irratian kolaboratzaile lanetan aritu zara. Oso ezberdina da podcast bat egitea?

Bai eta ez. Manu Etxezorturekin egiten nuenean, gai bat prestatuta eramaten nuen, orain egiten dugun bezala, baina niretzat oso garrantzitsua zen berarekin neukan *feeling* hori. Podcast batek azpiegitura konplexuagoa du eta koordinazio lan handia eskatzen du.

Pertsonekin lotura ona baduzu ez da zaila. Gure indargunee-tako bat da Mirarik eta biok oso ondo ezagutzen dugula elkar eta txispa hori badugula, eta horrekin jokatzeko dugu asko.

‘Luze edo Motz’ ikuskizunarekin zabiltzate azken aldian. Luzer jarraituko duzue ikuskizun horrekin?

Azken txanpan gabiltza. Datorren urterako beste ikuskizun berri bat prestatuko dugu eta Euskal Herrian zehar ibiliko

gara horrekin ere. Autoan sartu eta hizketan jarraitu behar dugu.

Apirilean Artzabalgo Kultur-potean parte hartuko duzue. Orduan ere ‘Luze edo Motz’ ikuskizuna eskainiko al duzue?

Ez, oraindik ez dugu definitu zer egingo dugun, baina ez da “Luze edo Motz” izango. Agian, zatiren bat edo beste egingo dugu, baina gauza berriak izan daitezke.

Miriam Arrillaga oso sendo Binakako Master Laboral Kutxa txapelketan

Larunbatean Binakako Master Laboral Kutxako partidak jokatu zituzten Galdakaon eta elite mailako pilota mistoko norgehiagokan Miriam Arrillaga izan zen pilotaririk nabarmenduena. Etxegarai-Arrillaga bikotea 22-16 gailendu zitzaion Garai-Gaminde bikote sendoari.

Oso indartsu aritu zen Miriam Arrillaga aginagarra asteburuko partidaren eta aurkari zuzenak zituzten Garai-Gaminde bikoteari nagusitasunez irabaztea lortu zuten. 13 puntu egin arte oso berdinduta egon zen partida, baina hortik aurrera Etxegarai-Arrillaga bikoteak aurre hartu zuen markagailuan. Enara Gaminde maila ederra erakusten ari da txapelketan, baina astean zehar gaixorik egon zen, eta ez



Miriam Arrillagak (eskubetik hasita, bigarrena) partida ikusgarria jokatu zuen.

MASTER CUP

“Etxegarai-Arrillaga bikotea 22-16 gailendu zen Garai-Gaminderen aurkako partidaren”

zen partidara mailarik onenean iritsi.

Finalak ETB1n

Martxoan jokatuko dituzte finalerdiak eta finalak, maila guztietan. Txapelketa martxoaren 26an amaituko da Zarauzko Aritzbatalden.

Finalerdiak (martxoaren 12an) eta finalak ETB1 katean eskainiko dituzte.

Gandiara Usurbil K.E.-koekin

Usurbil Kirol Elkartetik Gandiara (Valentzia) bidaia antolatzekotan dira. Bertan, apirilaren 6tik 9ra antolatu duten “Mediterranean Handball Cup” eskubalo txapelketa jokatzeko da joan-etorri honen helburua. “Gutxienez 4-5 partida jokatzeko bermatzen du” ekimenak. Bertan “infantil mailatik jubentil mailara arte, neskek zein mutilek dute apuntatzeko aukera”, Usurbil K.E.-tik NOAUA!ri ohartarazi diotenez.

Izen-ematea zabalik da

Bidaia izena otsailaren 24a baino lehen eman behar da. Gurasoei bidaia honen berri emateko emaila bidaltzekoak dira egunotan eta bertan dagoen estekan bideratu ahalko da inskripzioa. “Jokalari kopuruen arabera ikusiko du klubak taldea atera daitekeen edo ez. Animatu eskubaloiaz gozatzera!”, egin dute gonbita.

Autobusean

Bidaia autobusean egingo litzateke, eta gastuaren barne sartuko lirateke honako hauek:

- Bidaiaren joan-etorria autobusean.
- Hotela 3 dietak barne.
- Txapelketako inskripzioa.
- Erantzunkizun zibileko eta kirol aseguruak.
- Fisioterapeuta.
- Kiroldegi-hotel joan-etorriak autobusean.

Xake topaketa arrakastatsua

Sutegi udal liburutegiak antolaturiko xake topaketak aurreikuspen guztiak gairitu zituen. Otsailaren 20ko saiorako plazak berehala agortu ziren eta bigarren topaketa bat antolatu behar izan zuten bihar-munean. Topaketa bikoitzak hortaz, agerian utzi du xakeak zaletu asko dituela gaztetxoaren artean.



Parte hartzaileek partida laburrak jokatzeko aukera izan zuten.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugul!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarre-ran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lanaldi erdian (goizetan) etxeko lanak egiten aritzeko pertsona baten bila nabil Zubietan 695783202.

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko.

943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatexean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partiku-

larrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltsaritza lanean bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erlorju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patioarako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlorju beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdutuenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzitza genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzitza eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Eskubaloit partidak**Oiardo kiroldegian:****Otsailak 24, ostirala**

■ Senior mutilak, 20:25:

- Usurbil K.E.

- Txikiopolit ZKE.

Usurbildik kanpo:**Otsailak 25, larunbata**

■ Allurralden, kadete

mutilak 11:45:

- Leizaran Urdaña.

- Usurbil K.E.

■ Allurralden, jubenil

neskak 16:00:

- Leizaran Eskubaloia.

- Urbil Usurbil K.E.

Otsailak 26, igandea

■ Majorin, kadete neskak

11:30:

- Ordizia Oiangu A.

- Usurbil K.E.

Futbol partidak**Harane futbol zelaian:****Otsailak 24, ostirala**

■ 20:45 Preferenteak:

Usurbil FT-Oiartzun KE B

Otsailak 25, larunbata

■ 10:00 Infantil neskak:

-Usurbil FT A

-Aiztondo Neskide K

-Usurbil FT B

-Antigua Luberrri KE

■ 11:15 Infantilak:

Usurbil FT-Allerru KE

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil FT B-Hernani CD C

Otsailak 26, igandea**Futbol Eskola**

■ 17:30 Erregionalak:

-Usurbil FT

-Arrupe Chaminade CD

Futbol partidak**Haranerik kanpo:****Otsailak 25, larunbata**

■ 11:00 Kadeteak,

Seguran:

-Aizkorri FT C

-Usurbil FT B

■ 12:00 Kadete

preferenteak, Oñatin:

-Aloña Mendi KE

-Usurbil FT

■ 12:40 Kadete neskak,

Cesar Beniton:

-Intxaurdi Allerru KE C

-Usurbil FT

■ 15:30 Jubenilak,

Martutenen:

Mundaiz SCD-Usurbil FT

Otsailak 26, igandea**Futbol Eskola**

■ 18:05 Preferente

neskak, Berion:

-Santo Tomas Lizeoa KE

-Usurbil FT

Heriotzak**Dominga****Aranguren****Olaizola**

Otsailaren

15ean hil zen,

95 urterekin.

**Heriotzak****Jose Maria****Zabala****Loyarte**

Otsailaren

16an hil zen,

79 urterekin.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astlehena 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 03 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

24 ostirala

- **Sagarrondotik Sagardora** ikastaroa 15:30-18:30 Potxoenean, Aitor Etxeandiarekin
- **Bizitza plataformak antolatutako hitzaldia.** 18:30 Sutegin.
- **Sareren mobilizazioa.** 20:00 Mikel Laboa plazan.

25 larunbata

- **Kantu-jira.** 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

26 igandea

- **"HerrimaMITUZ" ikuskizuna** Aginagan. 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrear. Parte hartzaileak: Andoni Egaña eta Iñigo Mantzizidor "Mantxi" bertsolariak eta Xabier Alberdi historialaria.

'HerrimaMITUZ' bertso-ikuskizuna, Aginagako eliza zaharrear

Iñigo Mantzizidor Mantxi eta Andoni Egaña bertsolariek eta Xabier Alberdi historialariak HerrimaMITUZ bertso saioa eskainiko dute igandean Aginagako Eliza Zaharrear. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan aurrez eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.

"Herrian herriko pasarteak kontatu eta gai bihurtuz, gure herrien mamia, bertsoz azaleratzeko ariketa jolastia" da HerrimaMITUZ emanaldia. Igande honetan Aginagako Eliza Zaharrear izango dira ekitaldi honetako protagonistak.

Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eki-



Igande honetan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da bertso-saioa.

taldia eta sarrerak 5 eurotan aurrez eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.

Kimaketa 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroan

"Sagastien neguko kimaketa eta ongarririketa" ikastaroa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak otsailaren 24an, 15:30-18:30 artean Potxoenean, Aitor Etxeandiarekin. Izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus eta alkartasuna.eus webguneetan edo 943 361 114 telefono zenbakian. "Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira", ohartarazi dute.

Larunbat honetan kantu-jira berri bat

Hilabeteko azken larunbatean irten ohi dira plazara. Otsaileko kantu saioa hortaz, larunbat honetan tokatzen da. Egurdiko 12:00etan elkartuko dira Mikel Laboa plazan. Animatzen zareten guztiak ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea. Gogoan izan bestalde, astelehenero elkartzen direla entseatzeko. 18:00etan Udarregi Ikastolako Agerialde eraikineko musika gelan.

Datozenak

Emakumeen Etxean asanblada irekia

Martxoak 4 larunbata, egurdiko 12:00etan Potxoenean. Talde sustatzaileak egindako lanketaren berri emango da eta ondoren bertso bazkaria izango da Artzabalen. Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Jone Uria. Txartelak Artzabalen bertan dituzue eskuragarri.

LH 5-6ko multikirolaz hausnarketa saioa

Udalak LH5-6 mailakoen multikirolaren inguruko hausnarketa abiatuko du: hiru saio izango dira guztira. Hirugarren saio honetan, proposamen zehatzen lanketa egingo dute.

Martxoak 1, asteazkena

Ordua: 18:30ean Potxoenean. Antolatzailea: Usurbilgo Udal.

Martxoaren 11n, Oriako Traineru Jaitsiera

XXIX. edizioa izango da aurtengoa. Martxoaren 11n larunbata, 17:30etik aurrera. Partehartzaileak Aginagatik abiatu eta Oriarako bidea osatu beharko dute.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrene 1, 1c Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

**Zuen
publizitatea
hemen**

 **943 360 321**
publizitatea@noa.eus

Ofizioen Gida



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

URDAINTZI
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Antonio URRUZOLA
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.8 20170 USURBIL

Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINATZAKO GREHIOAK · KOKUHEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04

ANORCA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URDAIRA

Sagardotegia

AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Untarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • **943 55 69 81**

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga avzea, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

**AIALDE
BERRI**

Santuenea